

## Kutxabankek adingabeentzat Bizum zabaldu du, gurasoen baimenarekin

- **12 eta 17 urte arteko neska-mutilek senitartekoen eta lagunen dirua bidali eta jaso ahal izango dute, eta sarean erosketak egin ahal izango dituzte kopuru mugatuekin**
- **Beren lege-ordezkariek mugak murriztu, haien mugimenduak kontsultatu eta alertak konfiguratu ahal izango dituzte, eragiketen berri izateko**

**2024ko ekainaren 25ean.** Adingabeek gero eta gehiago bidaiatzen dute, hizkuntza-ikastaroak egiten dituzte eta oporretara maizago joaten dira. Bere bezero diren familiek geroz eta baliabide digital gehiagoren beharra dutenez, Kutxabankek adingabeentzako finantza zerbitzuen bilduma zabaldu du.

Hobekuntza horietako bat da adingabeentzako Bizum. Gaztedi planen bezeroek plataforma honen bitartez dirua jaso eta bidali ahal izango dute aurrerantzean. Ondorioz, 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek funtzionalitate mugatu batzuekin jardun ahal izango dute, beti ere gurasoen baimenarekin.

Bizumen eginkizun berri honek adin txikikoei aukera emango die lagunen edo senideen dirua jaso eta bidaltzeko, baita internet bidez erosketak egiteko, ohikoa baino kopuru txikiagoekin. Hori bai, erabat debekatua izango dute kasinoetan, apustuetan, kriptotaktiboetan edo antzeko jardueretan aritzea.

Uneoro, egindako mugimenduak gurasoek berehala kontsultatu ahal izango dituzte, nahi badute ezarritako mugak murriztu eta balantzea kontrolatzeko alertak ezarrita.

KutxabankPay aplikazioan integratuta dagoen adingabeentzako Bizum, bankuko bulegoetan soilik kontratatu ahal izango da, nahitaez adingabeen legezko ordezkarietako bat bertan dela.

Baliabide digital berri honekin batera, Kutxabanken Gaztediko bezeroek KutxabankPay aplikazioarekin denda fisikoetan ordainketak egin ahal izango dituzte, zordunketa txartela Android mugikor batean erregistratuz. Gainera, Online Bankara eta Banku Mugikorrera sartzeko aukera izango dute euren kontuak eta txartelak begiratzeko, eta beste eragiketa batzuk egiteko, hala nola txartelak pizteko edo itzaltzeko.

### Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian,



kutxabank

Komunikazio zuzendaritza

● Prentsa-oharra

Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.

---